


UZTURPE PRESSE

ALDIKARIA



UZTURPE



3. EDIZIOA

AURKIBIDEA

ERREZETAK

ELKARRIZKETA

FUTBOL TXAPELKETA

ESKUBALOI TXAPELKETA

IPUINA

MITOAROA

GURE BIHOTZAREN TAUPADAK

MARRAZKI LEHIAKETA

TXISTEAK

ERREZETAK

KROKETAK

Osagaiak:

- 1-bexamela
- 2-arrautzak
- 3-urdaiazpikoa
- 4-gaztainak
- 5-irina
- 6-ogi-xigortua



Pausoak:

Lehenik, arrautza pare pat egosi (depende zebat kroketa egin nahi dituzun). Horretarako, ura irakiten utzi, eta gero bota gatz dezente. 15-20 minutuz utzi arrautzak, gero atera eta arrautzaren azala kendu. Bestetik, urdaiazpikoa zatitxo txikik moztu eta gero gorde.

Gero, egin bexamel-saltsa potolo xamar bat eta jarraian egin gehitu arrautzak, urdaiazpikoa eta gaztainak besamelera. Ondoren, nahastu ondo. Jarraian, ontzi batera atera bexamel-saltsa hoztu dadin.

Gero, beste platera batean jarri irina eta beste platera batean ogi-xigortua eta beste platera batean arautzak irabiatuta.

Bexamela hotza dagoela ziurtatu dugunean, zatiak egin eta hartu eta horiei kroketa forma eman, ondoren, igaro irinetatik, arrautzetatik eta ogi-xigortutik(orden horretan) eta gero frijitu eta jan.

Nahi badezu gero izoztu eta beste egun batean jan.

TORTITAK

OSAGAIAK:

345gr irin
2 koilara azukre
1 gr gatza
30 gr gurin
3 gorringo
3 txuringo
500 gr esnea



Pausoak:

Bol batean nahastu, irina, gatza, gorringoak, gurin urtua eta esnea. Gero, ondo nahastu ore fina gorputzakin lortu arte.

Gero, montatuta nahastu zuringoak, poliki-poliki.

Ondoren, zartari batean, igurtzi gurina tortitak itsatsita ez geratzeko, itxoin pixkat eta yasta.

Elkarrizketa

IÑAKI MANDIOLA



·Txikitatik irakaslea izan nahi zenuen?

Ba ez, egia esan ez, txikitan, berez , hasieran animaliekin lana egiteko asmoa neukan baina gero interes hori gutxitu egin zen. DBH-Batxilergoan hasi nintzenean ez neukan argi zer egin nire bizitzan zehar. Geroago, udalekuetako monitore eta sukaldari bezala hasi nintzen lanean.

·Zergatik aukeratu zenuen Ingeleseko irakaslea izatea?

Ingelesarekin edo atzerriko hizkuntzekin nolabaiteko erraztasuna izan dut txikitatik, eta Ingelesa betidanik izan da gustatu izan zaidana. Batxilergoan partikularrera joaten nintzen, gero, bestetik, bi aldiz egona nago Ingalaterran.. Azkenean, gustoa hartu diot Ingelesari.

·Txikitan non bizi zinen? Eta orain, non bizi zara?

Ba jaio eta 6 urte bete arte Eibarren bizi izan nintzen, 6 urterekin Zarautzera mugitu nintzen ama, aita eta nire anaiarekin.

·Gustora zaude Uzturpe ikastolan?

Ba egia esan oso gustora nago, ikasleak oso langileak dira, langileekin ere oso gustora nago, horrela oso erraza da lan egitea ikastola honetan.

·Ingelesetik, zerk liluratzen zaitu gehien?

Ba esango nuke musikak, nire bizitzan zehar entzun dudak musikaren %75-a esan dezakegu Ingelesez izan dela, eta honek bai agian bultzadaxo bat ere eman didala Ingelesean ikasteko, ingelesean murgiltzeko. Nik garai hartan ez nuen laguntza askorik nire familiko ia inorrek ez zekien eta ingelesez.

·Zergatik gustatzen zaizu irakaslea izatea?

Alde batetik, ez delako lanbide bat, non egunero gauza berdina egiten duzun, egun bakoitza desberdina da, gaurko egunak eta atzokoak ez dute zer ikusirik eta biharkoak ere ez, atzo funtzionatu zidan ariketa batek igual ez du funtzionatzen beste gela batean... Horregatik, naiz irakaslea.

·Nor bizi da zurekin etxean?

Gaur egun nire kuadrilako batekin bizi naiz pisu batean, Xabierrekin edo Bixa. Oso lagun onak garelako bizi naiz berarekin.

·Zein da zure janari gustukoena? Eta, zein da sukaldatzea gustatzen zaizun janaria?

Ez daukat janari bat non esaten dudala "UAU HAU DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIDAN PLATERA", baina adibidez arkumea erreta asko gustatzen zait, edo nire amaren tomate beteak labean haragi pikatua, tipula eta barazkiekin. Niri gehien sukaldatzea gustatzen zaidana tortila patata da, onena ateratzen zaidan platera da, lentejak ere oso onak ateratzen zaizkit.

·Normalean, zer egiten duzu asteburuetan? Eta zer gomendatzen duzu asteburuetarako?

Niri normalean gustatzen zait larunbat goizetan, hiru arrautzez eginiko tortilarekin, nire zukuarekin eta tostadatxo batekin gosaltzea eta gero gimnasia joaten naiz, 10:00-11:00-tara edo 11:00-12:00-tara. Niri asko gustatzen zait eguraldi ona egiten duenean mendira joatea. Zinera ere joatea ez da plan txarra, baina zoritxarrez prezioa geroz eta altuagoa da.

·Ba al daukazu maskotarik etxean? Eta zein gustatuko litzaizuke edukitzea?

Ez, ez daukat maskotarik, baina eduki nuen dordoka bat Lupita izenekoa, arrain depositua oso txikia zen berarentzat, urte batzuk ziituela ur-ontzitik alde egin zuen eta ez genuen gehiago ikusi. Eta behin gaua zela etxe aurrean xaguxar txikitxo bat zegoen ia ia hilda, nik hartu egin nuen eta aitak eta biok zereal kaxa batean jarri genuen, barazki batzuekin, eta ni oso txikia nintzelako ez nintzen ohartu xaguxarrak ugaztuna direla eta beraien amaren titia behar zutela. Horregatik, hortik 3-4 egunetara hil egin zen. Nik txakur bat eduki nahiko nuke, baina nik dudan etxea ez da horren handia, eta txakurrak toki handigoa eduki beharko luke.



FUTBOL

TXAPELKETA

Uzturpe ikastolako bi ikaslek, Adrian Gonzalezek eta Liher Sarasolak futboleko txapelketa bat antolatu zuten kazetaritzako tailerretan. Urtarrilak 8tik urtarrilak 15era jokatu zen txapelketa. 34 pertsonak parte hartu zuten guztira eta patio orduetan jolastu ziren partidoak.

Lehenengo partidua Liher-Andde-Dani vs Etxahun-Oier-Intza R. izan zen, eta penaltietan Etxahunek, Oierrek eta Intza R.ek irabazi zuten.

Hurrengo partidua Denis-Aiur-Intza vs Beñat-Malen-Urko izan zen. Denisek, Aiurrek eta Inzak penaltietan irabazi zuten.

Hirugarren partidua Irai-Inhar-Aiora vs Ugaitz-Joseba-Ezequiel jolastu zen. 0-1 irabazi zuten Ugaitzek, Josebak eta Ezequielek.

Ondoren, laugarren partidua, Adrian-Laia- Sif edden vs Mattin-Irade-Hugo. 2-0 bukatu zen, Adrianen, Laiaren eta Sif eddenen alde.

Bostgarren partidua Lautaro-June-Xuban vs Anje-Hodei-Ibon. 0-2 bukatu zen partidua, Anjerren, Hodeiren eta Ibonen alde.

Hurrengo, Liher-Andde-Dani vs Loulad-Kira-Araitz-Eiartz. 2-0 bukatu zen Liherren, Andderen eta Daniren alde.

Lehenengo faseko azkenengo partidua Etxahun-Oier-Intza R. vs Loulad-Kira-Araitz-Eiartz. Partidua Etxahunek, Oierrek eta Intza R.ek irabazi zuten.

Final-laurdenetako lehenengo partidua Etxahun-Oier-Intza R. vs Ugaitz-Joseba-Ezequiel izan zen. Partidua oso lehiatua izan zen, 00:09 segundu geratzen zirenean Ugaitzek, Josebak eta Ezequielek penaltiz gola sartu zuten eta irabazi egin zuten.

Hurrengo partidua Denis-Aiur-Intza vs Liher-Andde-Dani izan zen. 0-2 bukatuta partidua, Liher, Andde eta Dani final-erdietara pasa ziren.

Ondoren, Adrian-Laia-Sif edden vs Hodei-Anje-Ibon izan zen.

Hiru partidu egin zirenez final-laurdenetan bigarren hoberena ere pasatzen zen, hau da, denbora gehien iraunderako partiduko bi taldeak, edo penaltietan bukatzen zen partiduko bi taldeak. Eta orduan, bi talde hauek pasa ziren, partidua penaltietan bukatu zelako. 5-4 bukatu zen, Adrianen, Laiaren eta Sif eddenen alde.

Final-erdietako lehenengo partidua Liher-Andde-Dani vs Adrian-Laia-Sif edden izan zen. Partidua lehiakorra eta interesgarria izan zen, baina azkenean 1-0 egin zuten, eta Liher, Andde eta Dani finalera pasa ziren lehenengo taldea izan zen.

Ondoren, Ugaitz-Joseba-Ezequiel vs Hodei-Anje-Ibon. Denbora bukatu zenean 0-0 zihoazten, eta penaltietara joan ziren. Hiru penalti bota zituen talde bakoitzak, eta azkenean bakarrik 2 penalti sartu ziren porterira, ahu da, talde bakoitzeko batek bakarrik sartu zuen gola. Azkenean, bukatu egin zen. Partidu oso ona eta ikusgarria izan zen, baina irabazle batek egon behar zuen, eta Hodeiek, Anjek eta Ibonek irabazi zuten.

Azkenean finaleko eguna iritsi zen. Liher-Andde-Dani vs Hodei-Anje-Ibon. Finala 10 minutuetan gol gehienak sartzen zituenak edo 5 gol sartzen zituenak porterian. Partidua hasi zenean, ematen zuen denak baloiaren bila zihoaztela, basati moduan. Partidua oso interesgarri zegoen, baina, denbora pixkatera, Liherrek gola sartu zuen. Bi taldeek goleko aukera

asko edukita, Liherrek bigarren gola sartu zuen. Baloia-aren posesioa Liherrena, Andderena eta Danirena izaten hasi zen.

Bi taldeak borrokatzen egon ziren baloiarengatik eta Liherrek hirugarren gola sartu zuen. Hodei, Anje eta Ibon baloiaren posesio handiagoa lortzen hasi ziren, eta aukera gehiago edukitzen zituzten. Anddek tiro bat egin zuen, Anjeri jo zion eta gola sartu zen. Txupa! Andderentzat penaltia! Anddek Liherri penaltia botatzen utzi zion, eta Liherrek baietz esan zuen. Laugarrena! Liherrek gola sartu zuen. 4-0 zihoazten, eta ez zen denbora asko falta. Liherrek penaltia sartu zuenetik baloiaren posesioa Hodeiek, Anjek eta Ibonek zuten. Jokaldi batean, Anjek zuen baloia, ia arean, tiroa bota eta gola! Anjek gola sartu zuen! Gutxi gora behera, 3 minutu geratzen zirenean, Anjek berriro baloia lortu zuen. Berriro areatik tiroa egin zuen eta gola! 4-2 zihoazten. Irabazteko esperantza lortzen ari ziren, baina denbora gutxira denbora bukatu zen.

Liherrek, Anddek eta Danik irabazi egin zuten. 4-2 bukatu zen, baina oso partidu lehiatua, interesgarria eta ikusgarria izan zen.

Liher-Andde-Dani

ZORIONAK!

ESKUBALOI TXAPELKETA

Antolatzaileak: Sif edden eta Xuban.

Uzturpe ikastolan eskubaloiko txapelketa bat egin zen, 2025ko urtarrilak 7an antolatu zen. Txapelketako saria jumpersak, bi kojak eta bost txikle izan ziren.

Txapelketan eskubaloiko penalti lerrorik, penaltiak bota ziren. Txapelketa patioan jokatu zen: 11:00tan. 5era izan ziren partiduak.

Hauek dira penaltien emaitzak:

Asteazkena: Iker vs Illan{Iker} 2:5

Asteazkena: Alex vs Maja{Alex} 4:5

Osteguna:Omar vs Zuriñe{Omar} 0:5

Osteguna:Ekain vs Egoitz{Ekain} 3:5

Ostirala:Emi vs Anje{Emi} 8:9

Ostirala:Andriy vs Maikel{Andriy} 6:5

Azkenean bi irabazleak:Andriy eta Ekain izan ziren.

MAIERREN ABENTURA

Maier bere amonarekin bizi zen eta egun batean herrira joatea erabaki zuen, baina ezin zuen bere amona bakarrik utzi eta amonak haxe esan zion bilobari:

-Lasai egon nigatik urte asko egon naiz bakarrik eta- esan zuen amonak.

-Seguru zaude ez zaizula ezer pasako ezta?-erantzun zion bere bilobak. Eta orduan herrira bidaiatzera erabaki zuen.

Eta bidean baso batekin topo egin zuen

-Ze baso handia!-esan zuen Maierrek.

Basoa oso handia zen eta Maier galdu egin zen.

-Eta orain zer egingo dut?-galdetu zion bere buruari.

-Gure laguna izan zaitezke-Erantzun zuten beste guztiek.

-Eta zuek Zein zarete?eta nondik zatozte?

-Ni Miren

-Eta ni Aiora

-Ni Maier

-Eta nik Maren dut izena eta hemen gaude galdu egin ginelako zu bezelaxe.

-Eta orduan guk aurkitu beharko dugu irteera- galdetu zuen Maierrek

-Hori behin baino gehiagotan saiatu gara egiten - esan zuen Mirenek.

-Orduan baso honen bideak memoriz dakizkizue- pentsatu zuen Maierrek.

-Eta orain esaten duzula arrazoi duzu! - hausnartu zuten.

Orduan bidea gogoratzen saiatu ziren.

Lau egun geroago bidea gogoratu zuten eta bidera joan ziren.

-Gogoratu dut bidea- esan zuen Mirenek.

-Ze ondo!!!!!!!-esan zuen Maierrek.

-Asko pozten gara zugatik!- esan zuten denek batera.

-Zergatik gaude hemen geldirik? goazen baso hontatik irtetera- esan zuen Maierrek.

-Ezkerretikan da bidea da aurrera!

-Ze ondo irteera da!- poztu ziren.

-Joan baino lehenago nire lagunak izan nahi duzue?-esan zuen Maierrek.

-Ba noski baietz- erantzun zuten besteek.

-Lagunak beti-esan zuen Maierrek.

-Lagunak beti-esan zuten besteek.

Eta horrela denak pozik bukatu zuten.

Zetak MITOAROA

Zetak taldea sortu zenetik 5 urte igaro dira, horregatik MITOAROA emanaldia sortu du. Kontzertua Iruñean, Nafarroa Arenan eskaini zuen.



Urtarrilaren 3 an 15.000 pertsona izan ziren bertan, eta Urtarrilak 4ean beste 15.000 pertsona.

Mitoa emanaldira jende asko gonbidatu zuen Pello-k, besteak beste:

- Erramun Martikorena
- Jon Garmendia
- Jagoba Arrasate
- NEOMAK taldea:
 - Amets Ormaetxea
 - Leire Etxezarreta
 - Irati Guitierrez
 - Maria Lasa
 - Alaitz Eskudero
 - Eneritz Aulestia
- Arbizuko txatarrak
- Joaldunak
- Altsasuko mamoxarroak
-

Hurrengo kontzertua, mitoaroaren jarraipena, 2025eko irailean izango da, Ilunben (Donostia).

GURE BIHOTZAREN

TAUPADAK

(Euskaraldia 2025)

Elkarrekin mundua aldatu
dezakegu esan zenidan
Zu nire hauspo izango zara
Ni zure babestokia.

TATARARA
TATARARA
TATARARA
TATARARA

Eta hitzez hitz
Etorkizuna berreraiki

Entzun gure bihotzaren taupadak
Euskaraz dira (bis)

Eta hitzez hitz
Dena aldatzen ikasi

Eta hitzez hitz
Euskaraldiari ekin
Eta hitzez hitz
Dena aldatzen ikasi (bis)

TATARARA
TATARARA
TATARARA
TATARARA

TATARARA
TATARARA
TATARARA
TATARARA

Entzun gure bihotzaren taupadak
Euskaraz dira

Entzun gure bihotzaren taupadak
Euskaraz dira (bis)

Azparnetik hasi eta Tuterara
Gure ahotsak gertu daude
Udaberrian loreak bezala
Lratu gara kalez kale

Eta hitzez hitz
Etorkizuna berreraiki

Eta hitzez hitz
Dena aldatzen ikasi

Marrazki lehiaketa!

Guk, Mattin eta Beñatek, marrazki lehiaketa antolatu dugu. LH4, 5 eta 6ekoak bakarrik ahal zuten parte hartu. Adinka izan zen txapelketa, eta marrazkiak asteleheneko patioan entregatu behar ziren.

4 Pertsonak hartu zuten parte: Naroa Raposok, Uxue Baraibarek, Aritz Garmendiak eta June Corriolsek. Oso zaila izan zen erabakitzea, baina aukeratu genuen.

Lehenengo, Naroa Raposo geratu zen. Bigarren, Uxue Baraibar geratu zen. Hirugarren, Aritz Garmendia eta nahiz eta oso ondo egon June Corriols geratu da azkena.

Denak eduki dute saria Junek izan ezik.


Bakarrik LH5eko ikasleek hartu dute parte, arraroa egin zaigu.



UZTURPP

KASTOLA

UZTURPP



TXISTEAK:

Andereinoak galdetzen dio ikasleari:

-Zebat hezur dauzka zure gorputzak?

-208, andereino- erantzun du ikasleak.

-Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur dauzkagula?

-Bai baina... gaur oliba hezur bat irentsi dut.

2-

Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

-Mediku jauna, arazo bat daukat! Nire puzkarrek ez dute usainik

-Hori ez da posible!! Bota ezazu bat oraintxe bertan

-PPPPPPRRRRRRR!!!!!!

-Hori oso larria da. Ebakuntza bat behar duzu!

-Non? Ipurdian?

-Ez, gizona, ez, sudurrean!

3-

Ume batek esaten dio bere aitari:

-Aita, aita, aita!! Utziko al didazu telebista ikusten?

-Bai! Baina piztutzen ez!

4-

Ume batek esaten dio emakume bati:

-Ama,ama! ikastolan despistatua deitzen didate!

-Aizu haurra! joan zaitetz zure amarengana!

5-

Haur batek esaten dio amari:

-Ama bi notizia ditut esateko. Lehenengoa oso ona da:
matematikan 10 atera dut.

-Oso ongi, oso ongi!-esaten dio amak.

Eta zein da bigarren notizia?-galdetzen dio amak.

-Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

6-

Banpiro batek, ahotik odola dariola ikusi du bere laguna:

-Aizu, baina non lortu duzu halako odol pila?

-Zatoz nirekin, eta ikusiko duzu!

Kaleko horma bat erakusten dio esanez:

-Ikusten al duzu horma hori?

-Bai! - erantzuten dio adiskideak.

Ba.... nik, ez dut ikusi!



Argi

Eideru II



Aiora

DANI



Ashly



Kristina



LIHER



ADRIÁN



Beñat

Sif eden



MATTIN



Guillermo



UNAÍ



Eneztz